

2015eko urtarrilaren 21a

HASIEREA BARRIAK BIDAIDE KULTUREA MUSIKEA AGENDEA BARRIKETAN BLOGAK BOTAZINOAK JO BEGIZ

BIZKAIE euskera berabagai euskaldunok munduan pil-pilean begi betegarri estekak sarean antxina-barri **jan-edanak**

hasiera > barriak > jan-edanak > Aitor Elizegi kozineruak edegi dau Bizkaiko txotx denporaldia

Jan-edanak

Aitor Elizegi kozineruak edegi dau Bizkaiko txotx denporaldia

  Zabaldu  Inprimidu  Bialdu lagun bati

Zornotzako Uxarte sagardotegian antolatu dau ekitaldia **Bizkaiko Sagardaogileak** alkarteak. Aitor Elizegi **Bascook** jatetxeko kozinerua arduratu da aurtengo sagardoa ikusi, usaindu eta probeteaz. Irene Pardo Nekazaritza diputadua be bertan izan da.



Montorra auzoko Uxarte sagardotegiak hartu dau aurtengo sagardoa denporaldiaren hasiera ekitaldia. *Bizkaiko sagardaogileentzat egun berezia da*, dinoe alkarteki kideek. Irene Pardok Bizkaiko Foru Aldundiaren babeska eskaini deusie sagardaogileei, euren jardunean aurrera egin deien, eta nabarmendu dau zer lan garrantzitsua egiten dauen Zallako Frutagintza Estazioak, sagarraren arloan bere bai, horretarako dauen upeltegi esperimentalaren bidez.

Produktino txikia egiten dabela azaldu dau Pardok, 1.000 litro inguru, zentroak dituan bariedadeekaz, *hainbat teknika aztertzearren*. Horrezaz gan, aurton *saiakera txiki batzuk* egingo dirala aurreratu dau, eta estazioan daukiezan landaketak berrantolatu ere egingo ditue.

Bizkaiko Sagardaogileak alkartea 1994an sortu zan. Gaur egun hamar artisaupeltegik osotzen dabe alkartea: Etxebarria upeltegia (Gatika), Leartibai Sagardoa (Gizaburuaga), Uxarte upeltegia (Zornotza), Malgarrazaga upeltegia (Gatika), Axpe upeltegia (Markina-Xemein), Kandi Sat upeltegia (Muxika), Laka-Erdi upeltegia (Berriatua), Erdikoetxe upeltegia (Lezama), Isasi upeltegia (Iurreta) eta Sebastianeko upeltegia (Mendexa).

Bizkaie!

 Iruzkina 0

 Inprimidu  Bialdu lagun bati   Zabaldu

Zure iruzkina

* Markatuta dagozenak bete beharrekoak dira

Izena *

E-Posta *



Idatzi laukian alboko letrak *

E-posta helbidea ez da publikatuko. Konfirmazioetarako bakarrik erabiliko da. Bizkaie! egiten dogunon partez, eskerrik asko mendebaldeko euskalkian idatzitako Sareko aldizkari bakarria irakurteagaitik.

agenda



Erakusketak - 2014-12-16
Rockomikiak. Binetak & Doinuak
erakusketea.



Bestelakoak - 2015-01-21 19:00etan
Uxue Alberdiren Euli-giro ipuin liburuz
berba egingo dabe



Bestelakoak - 2015-01-21 19:00etan
Paul Austerren Kristalezko hiria aztertuko
dabe

irakurriena

iruzkinduena

1 'Loreak', pelikula onenaren Goya sarirako hautagai - 299 aldiz

2 Badatoz 2015eko maskaradak - 291 aldiz

3 Aritz Martinez de Luna: 'aldizkari edegia, parte-hartz... - 224 aldiz

bizkaie! facebookeko jariora

[Iniciar sesión](#)

Para usar los plug-ins sociales de Facebook, debes dejar de usar Facebook como Sagardoetxea, Museo de la Sidra Vasca en Astigarraga y empezar a usar Facebook como Leire Alkorta.

bizkaie! sarean



Flickr



Facebook



Twitter



Youtube



RSS

blogak



Mundua konpondu guran...
Iñaki Atxutegi
Bueltan

[Iruzkina ez](#)